

EBAZPENA, 2021EKO URTARRILAREN 13KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZUZENDARITZA HORREK 2020KO ABENDUAREN 3AN, 2019-2020 IKASTURTEAN HABEREN C1 ETA C2 EUSKARA-MAILAK EDO HORIEN BALIOKIDEAK GAINDITU DITUZTEN IKASLEEI DIRULAGUNTZAK ONARTZEKO EMAN ZUEN EBAZPENA ZUZENTZEKO DENA.

GERTAKARIAK

I.- HABEren zuzendari nagusiaren 2020ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez 2019-2020 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien balioakideak gainditu zituzten ikasleei zuzendutako dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egin zen.

II.- Ebazpen beraren 7. oinarriak xedatutakoari jarraikiz, eta 6. oinarrian finkatutako irizpideak aplikatu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak, 2020ko abenduaren 3ko Ebazpenaren bidez, eskariak onartzea (I. Eranskina) edota baztertzea (II. Eranskina) erabaki zuen, onartutako eskari bakoitzari zegokion dirulaguntza adieraziz, eta baztertutakoen arrazoiak zehaztuz.

III.- Aipatu 2020ko abenduaren 3ko Ebazpena argitaratu ondoren, HABEk baieztatu ahal izan du onartutako eskarien nahiz ukatutako zerrendatan akatsak egin dituela. Horretaz ohartuta, Ebazpen honen eranskinean zerrendatzen diren eskarien gaineko emaitza aldatzea onartzen da 2020ko abenduaren 3ko Ebazpenean adierazitakoa ez baita zuzena.

LEGEZKO OINARRIAK

Lehenena.- Urriaren 1eko Herri Administrazioen administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legeak, 109.2 artikuluan ahalbidetzen da Administrazioak bere ekimenean sortutako akatsak zuzentzeko aukera. Hala dio xedapen horrek:

“Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunak eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”.

Bigarrenena.- Errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko eskumenari dagokionez, zuzendu beharreko ekintza bera gauzatu duen organori dagokio.

Horrenbestez,



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2H7H-5S78 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2H7H-5S78 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

EBAZTEN DUT

Lehena.- Zuzendaritza nagusi honen 2020ko abenduaren 3ko Ebazpena zuzentzea, 2019-2020 ikasturtean HABEren C1 eta C2 euskara-mailak edo horien baliokideak egiaztatu dituzten ikasleei dirulaguntzak ematekoa, eta, ondorioz, Ebazpen honetako eranskinean zerrendaturiko ikasleei bertan adierazitako ditulaguntza ematea. Aipatu laguntza-kopuruak finkatzeko kontuan hartu dira eskatzaile bakoitzak egiaztatutako mailak, ordaindutako matrikula-kopuruak eta beste Herri Administrazioetatik ikasleak eskuratu dituen dirulaguntzak, azken hauek deialdiaren 8. oinarriak dioenari begira.

Bigarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>) argitara emanez eta, emandako dirulaguntzaren publizitateari dagokionez, HABEren web orrialdean argitaratuz (www.habe.euskadi.eus).

Hirugarrena.- Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostian, 2021eko urtarrilaren 13an.

Izp.: Jokin Azkue Arrastoa

HABEren zuzendari nagusia